

MILITANTZIARI AURRE EGIN

Gaua heltzen da eta
galdetzen diot nire buruari,
nork egin diezaioke aurre militantziari?
sinesmen propioei

Batzuk esan, besteok egin,
batzuk lan, batzuk ere ordain,
eguna hasi eta lanera joan,
jendea oihuka zerbaiten zain,
zerbaiten esperoan, ezer espero bada ere

Borroka bat, ehunka aurpegi,
borroka bat, klase bat,
kanpoan daude aldaketa sortu nahian,
kanpoan daude egon eza sortzeko nahian,
lortuko duten ez dut uste,
ez oraindik,
ez langileak diren bitartean,
ez nire aurka dauden bitartean

Nor naiz ni beste aldean egoteko,
nor naiz ni oihuka ez egiteko,
ni hemen
zure sufrimenduaz bizitzen,
nire etekin propioengatik,
nire posizio horrengatik

Nork egin diezaioke aurre norberaren militantziari?

meatzetan langileak hiltzen uzten dituenari,

lan prekarioekin erailtzen dituenari,

inposaketak jartzen dituenari,

harrotasunez eraikitako nazioaz hitz egiten dutenei,

hau izanda nire nazioa,

nire lurra, zure lurra

Nire militantziari aurre egin,

patroiei, nagusiei,

nire posiziotik aldentzen uzten ez didatenei,

zu zapaltzen uzten didatenei,

zu eta ni desberdinak garela esaten digutenei

Asko hitz egin baina gutxi egin

Lanaren banaketa, banaketa gabe,

banaketa soziala, sozialismo gabe

Militantziari aurre egin, ez baitaude zuzen,

inoiz ez dira egon,

ez dela bidea, baldintzak baizik,

ez dela bidea,

batzuk zapatekin, zuek hanka gabe

Ez dakit ni bezalakoa zaren,

badakit haientzako oso desberdinak garela,

ni banaiz, zu, ordea, inoiz ez zara izan

zure kolorea, zure arima,

zure nekea, zure lan ordu ordaindugabeak,

Ni banaiz, zu inoiz ez zara izan

Denari aurre egin nahiko nioke,

niregatik, zuregatik,

baina, nik zer egin dezaket?

zuri buruz hitz egiten nago, zu egon gabe,

zuk ezer ere ez jakin gabe,

azkenean,

zure iraultza da propioa egiten dudana,

nor bestela zure merituen jabe

Gaua heltzen da eta

konturatzen naiz oraindik hemen nagoela,

ez dudala afaldu eta ez dudala afalduko,

lau paretak hauek dira ezagutzen dudak bakarrik,

ezin naiz joan, hemen dago nire lekua,

lekua bai, baina errespetua ez,

duintasuna ez,

hemen nago baina inork ez nau ikusten,

hemen nago baina ez naiz inor

Nire bizitza osoa doa, badao,

eta ez daukat ezer gehiago ez bada nire gorpua,

nire bizitza osoa doa, bai badao,

kalean ikusi zaitut bizitza baten eskean,

nirea eman nahiko nizuke,

bizitza bat izatetik kondena bat izatera,

betirako kondena

Nola aurkitu zentzua, noiz,

Ni gabe ezin, nirekin ezta

Nire lankideak ikusi eta,

noiz joango garen galdetu,

noiz amaituko dugun,

noiz amaituko duten gurekin,

Gaua heltzen da, gosea ere,

nire semearen negarrak entzuten ditut,

non egongo den, non nagoen

Kalera aterako gara, ezin dugu gehiago,

oihuak,

irainak,

kalera aterako gara,

iraultza hasi da, iraultza gurea da,

oihuak,

irainak,

erailketak,

lagunak bilatu nahian, gorpuak aurkitu nahian,

nortzuk dira gure aurka datozen guzti horiek?

Gaua heltzen da, nire ohean aurkitzen naiz,

eguzkia atera eta altxa,

eguzkia atera eta lanera,

berriz hemen, berriz gosea,

oihuak,

irainak,

erailketak,

ez gaude kalean, lanean gaude

